

ZURE GAITASUNEN BERRI EMAN

Diplomen
 aitortza eta
 balioespena

Aitorpen
 sistemak

Diplomen aitortza eta balioespena

EBko profesionalak mugak zeharka ditzakete eta atzerrian jardun profesionala edo zerbitzuak eman. Eskubide hori betetzeko Europako herrialde batean lortutako aitortza profesionala edo diploma baten aitortza akademikoa beharrezkoak dira. **EBko Egiaztapen profesionalen aitortza sistema 2005/36/CE zuzentarauak arautzen du. Zuzentarau hura berriki 2013/55 / CE* zuzentarauarekin aldatu zuten.** Zuzentarauak esperientzia profesionala aitortzeko sistema modernoa eskaintzen du, eta EB barnean, Europako Esparru Ekonomikoan eta Suitzan esperientzia profesionala automatikoki aitortzera bultzatzen du. Gainera, lanbide hauetarako sarbidea herrialdekoak direnen baldintza beretan egitea bermatzen du.

Aitorpen sistemak

Aitorpen automatikoa oinarrizko formakuntzaren baldintza harmonizatuak dituzten 7 lanbiderentzat:

- Arkitektoa
- Dentista
- Erizaina
- Medikua (familiakoa eta espezialistak)
- Farmazialariak
- Emaginak
- Albaitariak
-

Normalean, lanbide hauetarako tituluek aitorpen automatikoa dute. EBko Estatu batean lanbide hori egiteko, harrera herrialdean lanbide horren ardura duen aginteari egin behar diozu eskaera, eta horretarako zure kalifikazioen frogak eman beharko duzu. Aginte horien aburuz zure formakuntzaren eta herrialdean behar denaren artean alde handia baldin bada, gaitasun proba bat edo egokitzapen ikastaro bat egitea eska diezazukete.

*https://ec.europa.eu/growth/single-market/services/free-movement-professionals/qualifications-recognition_en

ZURE GAITASUNEN BERRI EMAN

Diplomen
aitorpena eta
balioespena

Aitorpen
sistemak

Sistema orokorra : beste lanbide arautu batzuentzat (irakasleak, itzultzaileak, garraioak, kontularitza eta agente higiezinak) sistema orokorrak zure kalifikazio profesionalak EBko beste herrialde batean aitortuak izateko aukera ematen dizu.

Harrera herrialdea:

- ° Eskaera egiten duen langilearen kalifikazio profesionalaren maila harrera herrialdean eskatzen den mailaren segidan azpikoa baldin bada, harrera herrialdeak kalifikazioak aitortzen ditu.
- ° Jatorrizko herrialdean arautua ez den lanbideko langileak aitortzen ditu, baina soilik bi urtez lanaldi osoz lanbide horretan lan egin badute.
- ° Diplomen arteko parekotasunik ez bada eta baldintza batzuetan, hiru urterainoko egokitzapen garai bat edo gaitasunak egiaztatzeko proba bat inposa ditzake.

2005/36 / CE zuzentarauak kontuan hartzen dituen lanbideen zerrenda ez exhaustibo bat eskuragarri dago lanbide arautuen datu base batean*.

2005/36 / CE zuzentzaraua ez zaie aplikatzen kalifikazio profesionalerako legezko xedapen bereziak dituzten lanbideei. Lanbide hauetan sartzen dira nabigatzaileak, kontu ikuskariak, aseguru bitartekariak eta aireontzien kontrolatzaileak, baita garraioetako eta produktu toxikoen inguruko jardun profesionalak ere. Era berean, abokatuek eta agente komertzialek ere zuzentzarau bereziak dituzte.

* <http://ec.europa.eu/growth/tools-databases/regprof/index.cfm?newlang=en>

ZURE GAITASUNEN BERRI EMAN

Esperientzia profesionalen oinarritutako aitortpena

Diplomen
 aitortpena eta
 balioespena

Aitorten
 sistemak

lanbide batzuentzat (zurginak, tapizatzailleak, estetikariak, eta abar) esperientzia profesionalen oinarritutako aitortpena egin daiteke. Kalifikazioen aitortpena egiteko bi modu daude:

- ° Aitorten automatikoa - kalifikazioak esperientzia profesional batean oinarrituz eskatzen dira. Kalifikazio profesionalen aitortpenerako, 2005/36 / CE zuzentarauak finkatzen ditu esperientzia profesionalaren gutxieneko iraupena eta izaera, 17 eta 19 artikuluetan.

- ° Elkarren arteko aitortpena - kalifikazioak sistema orokorrean oinarrituz eskatzen dira: harrera herrialdearen agintean aburuz zure formakuntzaren (zure esperientzia profesionala barne) eta herrialdean behar denaren artean alde handia baldin bada, gaitasun proba bat edo egokitzapen ikastaro bat egitea eska diezazukete.

2018ko abuztua